Greziar independentziaren aldarrikapena (1822)

Guk, Heladeko herrien ondorengo jakintsu eta nobleok, Europako nazio ospetsu eta zibilizatuen garaikide garenok, legearen ezkutu zeharkaezinak babesturik dituzten abantailak ikusten ditugunok, jadanik ezin dezakegu jasan koldarkeriarik eta automesprezurik gabe lau mende baino luzeagoz (gehiagoz) menperatu gaituen otomandar boterearen uztarri krudela; bere borondatea beste legerik ezagutzen ez duen eta arrazoirik entzuten ez duen boterea, guztia despota-modura eta bere gutiziaren arabera agintzen eta xedatzen duena. Esklabotza luze honen ondoren, armez baliatzea erabaki dugu mendeku hartzeko eta gure aberria mendekatzeko, bere izaera bera ere bidegabea den tirania beldurgarriaren aurka, beste ezer aldera ezin dakiokeen parekorik gabeko despotismoaren aurka (...).

Gure eskubide naturalen zimentuen gainean eraikiz eta Europako gainerantzeko kristauen, gure anaien, pareko agertu nahian, turkiarren aurka gerra hasi dugu edo, zehazkiago sakabanatutako gure indarrak elkartuz, gorputz armatu bakarrean bilakatu gara, guztiz ausart gure helburua lortzeko, lege justuen bidez geure buruak gobernatzeko, edo guztiz suntsituak izateko, ez baitugu uste gure duinekoa denik, Heladeko herri ospetsuen ondorengoak, animalia adimengabeei eta ez izaki adimendunei dagokien egoeran, esklabotza egoeran bizitzen jarraitzea.

Greziar Batzarre Nazionala: Independentziaren aldarrikapena.

1822[1]

[1] [Testu honen iturria: ZZEE (1998): *Historia testu bidez*, Arabako Foru Aldundia - EHU, Gasteiz. Itzulpenaren arduradun den Mikel Aizpururen baimenaz].